



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Udalbatzak, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren bian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

MOZIOA: 2023KO MARTXOAREN 8A, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA.

Mozioak honela dio:

“25 urte baino gehiago igaro dira, Bejjineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik.

Mugimendu Feministak eta emakume-taldeek gidatutako borrokek lege-, gizarte- eta kultura-aldaketak lortu dituzte, eta, horren ondorioz, gizarteak aurrera egin du berdintasun- eta demokrazia-maila handiagoetarantz. Hala ere, mundu osoan eta gure komunitateetan emakumeen aurkako desberdintasunak eta diskriminazioak daude oraindik emakume izateagatik.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Gainera, Mugimendu Feminista eta emakumeen kolektiboak duela bi hamarkadatik zainketen krisiaz hitz egiten ari dira: bizitza zaurgarria eta dependientea da, eta ezerk ez du bizitza zaintzea baino garrantzitsuagoa izan behar. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da, eta horrek, begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Egoitzetako zein etxez etxeko langileak, gehienak emakumeak, lan baldintza duinen aldeko borrokari heldu behar izan diote etengabe haien egoera hobetzen saiatzeko. Feminizatutako eta prekarizatutako sektore honek, zaintzen krisiaren erresoluzio sexistaren beste albo kaltea dira, askoren ahotan dagoen soldata arrakalaren eragile nagusietakoa.

ESKU294294d4-8e52-4d32-ab71-ddad3cb8d809



Bizitza baldintza duin eta justuetan mantentzearen aldeko apustua egiteko eta zainketen krisi-egoera honi erantzungo dioten erantzun integralak aurkitzeko unea da. Horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Orain da liderrak izateko garaia, konpromisoak hartzeko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Horregatik guztiagatik, Tolosako Udalak erabaki du:

1.- Ikasteko eta ahalduentzeko espazioak antolatzea (emakumeen arteko laguntza, elkartasun eta aliantzako sareen bidez), politikara iristen diren emakumeek boterea baliatzean emakumeek duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten estereotipo eta kalteei aurre egiteko tresnak izan ditzaten. Era berean, botere-espazioak partekatzea eta lagatzea eragozten duten erresistentzia eta inertziei aurre egiteko, kristalezko sabaiak hautsiz eta espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi interseksionalarekin, emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarri.

2.- Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.

3.- Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko.

4.- EUDEleri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitze gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea eta ordezkariak orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.

5.- Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.

6.- Arreta bermatuko duten politika espezifikoak garatzea, bereziki zaurgarritasuna handiagoa den bizitzako etapetan eta egoeretan (mendekotasuna, haurtzarora, dibertsitate funtzionala, eta abar), eta, aldi berean, zaintzaileen lan-eskubideak bermatuko dituztenak.

Amaitzeko, Udalak dei egiten die herritarrei aktiboki parte har dezaten martxoaren 8rako Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta Tolosako Berdintasun Arloak eta Mugimendu Feministak antolatutako ekintza eta mobilizazioetan."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier



Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Xabier Martinez Quinquilla, eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez onartu du " 2023ko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna" izeneko mozioa.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenerekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
**ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IPLE0002-Mozioa, Martxoak 8 Emakumeen Nazio-eguna/Mozioa, Martxoak